



PANTXOA CARRERE

Anaitasunean

KD 951

Pantxoa Carrere (Azkain/Lapurdi-1948) gure kantagintzako erreferentzia sendoenetakoa dugu. 70. hamarkadaren hastapenean kantuan hasita, Peio Ospital-ekin batera, Iparraldeko herri kantu melodikoaren ordezkari ukaezin bilakatu da.

Lau hamarkada t´erdiko epeak ematen duen ikusmiratik begiratzen dio Pantxoa Carrerek etorkizunari eta hastapen berri bat ezartzen du oraingoan “Anaitasunean” izeneko bere disko eder honekin.

Kantua eta sentimenak beti hurbil direla ikasi du bere ibilbidean, eta herritarren unean uneko amets eta desirekin bat eginez irauten duela kantariak bere ofizioan. Herria, herritarrak eta kantua, triangelu sinergiko hori urrez harilkatu du orain arteko denboran eta triangelu berdinean mugitzen da oraingoan ere, disko berri honetan aurkezten dituen kantu gozo eta zotiletan.

Diskorako hautatu olerkiak (Manex Pagola, Daniel Landart, Manex Erdozaintzi Etxart, Leon St. Esteben, Xalbador, Etxahun Iruri, eta Pantxoa Carrere bera), herri zein herritarren sentimendu zintzoen iraunkortasunari buruz mintzatzen dira, aspaldian idatziak badira ere, beti baitira gaurkoak: askatasun gosea, maitasun beharra, hizkuntza eta kulturarekiko konpromezua, gure herri txikiaren geroa.

Mezu unibertsal sakon hauen aintzinean, boz leun eta samur bat somatzen dugu gure bihotzak xaramelatzen maitekiro, kantuetan gordetzen diren mezu poetikoentzat bide ezin hobea prestaturik. Kantuen mol-daketak ere zuzentasun horretarako prestatuak izanik, Iñaki Diéguez ekoizle artistikoaren eta musikarien dohaiak bertan islatzen dira: kantuak xumeak bait dira eta dotoreak une berean, apalak eta disdiratsuak, erraz gozatzekoak.. Eta Pantxoa Carrerek maisu bat bezala ageri da guzti horiek gozoki interpretatzen.

“Anaitasunean” disko berri honekin, hastapen berri bat iragartzen du kantari lapurtarrak, non bakarka arituko den han-hemenka, bere lirikaren ahala erakutsiaz publikoaren erantzun eskuzabala jasotzeko, duela 45 urte bezala.

Zuzeneko aurkezpena: azaroak 20, Donostia, Antzoki Zaharra.



PANTXOA CARRERE

Anaitasunean

KD 951

Pantxoa Carrere (Azkain/Lapurdi-1948) es una de las referencias más sólidas de nuestra canción. Comenzó su carrera a principios de la década de los 70 y junto a Peio Ospital, se ha convertido en representante indiscutible del canto popular melódico proveniente de Iparralde.

Pantxoa mira el futuro desde la perspectiva que dan cuatro décadas y media y, en esta ocasión, con “Anaitasunean”, este sobresaliente trabajo en solitario, desea marcar un nuevo comienzo.

En su larga trayectoria ha aprendido muchas cosas sobre su oficio, como es natural. Por ejemplo, que las canciones y los sentimientos populares deben estar cercanos y que el cantante es duradero, si acierta con los sueños y los deseos de las gentes. Este bagaje está, sin duda, presente en esta su opera prima. El pueblo, las canciones y las personas conforman el triángulo sinérgico que ha mimado durante décadas, el mismo que aflora en las dulces y sutiles canciones que componen este nuevo trabajo.

Las poesías que presenta en sus nuevas canciones (autoría de Manex Pagola, Daniel Landart, Manex Erdozaintzi Etxart, Leon St. Esteben, Xalbador, Etxahun Iruri, y suyas propias) hablan de nuestra tierra y de nosotros, expresando sentimientos tan sinceros como duraderos y, a pesar de haber sido escritas en diferentes épocas, siempre son actuales: el ansia de libertad, la necesidad del amor, el compromiso con la lengua y la cultura propias, el futuro de nuestro pequeño país...

Liderando estos mensajes universales, advertimos una voz tersa y suave, especialmente modulada para acariciar amablemente nuestros corazones y recrearnos en la atractiva poesía de sus canciones, a la vez que prepara el camino para que los mensajes contenidos en estas nos lleguen nítidamente. A este respecto, hay que resaltar que los arreglos de los temas también han sido elaborados y dirigidos con este mismo objetivo, y a través de ellos podemos reconocer el apasionado y cualificado trabajo del productor musical, Iñaki Diéguez, y de los músicos que han acompañado a Pantxoa Carrere en esta su primera aventura en solitario. Las canciones suenan sencillas y elegantes a la vez, humildes y brillantes, y sobre todo, fáciles de escuchar y disfrutar. Pantxoa Carrere las interpreta dócilmente con gran maestría

Con este nuevo disco, “Anaitasunean”, el cantante lapurtarra establece un nuevo comienzo en su carrera para, esta vez en solitario, cantar y ofrecer la fuerza de su lírica a un público tan deseoso como generoso, como hace 45 años.

Presentación en directo: 20 de noviembre, Antzoki Zaharra, Donostia.